

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Bigarren diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren 7/2025 Foru Agindua, urtarrilaren 13koa. Aldatzea azaroaren 29ko 784/2001, martxoaren 9ko 133/2005, irailaren 27ko 529/2017 eta urtarrilaren 20ko 12/2009 Foru Aginduak, 192, 198, 289 eta 346 ereduak onesten dituztenak hurrenez hurren

192 ereduak onartzen duen azaroaren 29ko 784/2001 Foru Agindua, 198 ereduak onartzen duen martxoaren 9ko 133/2005 Foru Agindua, 289 ereduak onartzen duen irailaren 27ko 529/2017 Foru Agindua eta 346 ereduak onartzen duen urtarrilaren 20ko 12/2009 Foru Agindua aldatzen dira. Aldaketa hau gainerako zerga administrazioekin informazio truke egokia errazteko eta ahalbidetzeko beharrezkoak diren arau erreferentziak eguneratzeko eta egokitzapen teknikoak egiteko egiten da, eta, ondorioz, zerga kudeaketa hobetzeko.

Horrela, Foru Agindu honek erabat integraturik arautzen du orain arte indarrean dagoen 192, 198, 289 eta 346 ereduaren informazio aitortzei aplikatzekoa zaion araudia.

Zuzeneko Zergen Zerbitzuak horren harira emandako txostena aztertu da.

Horregatik, dogozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau,

XEDATZEN DUT

Lehenengo artikulua. Aldatzea 784/2001 Foru Agindua, azaroaren 29koa, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuarena; honen bidez, Altxorraren letrekin egindako eragiketen berri urtero emateko 192 aitortpen ereduak onartzen da, eurotan bete beharrekoa; orobat, nola eta zuzen-zuzenean ordenadorez irakurri ahal izateko moduko euskarrian aurkeztu behar diren nahitaez, horretarako behar diren diseinu fisiko eta logikoak onartzen dira.

Honako aldaketa hauek egiten zaizkio azaroaren 29ko 784/2001 Foru Aginduari:

Bat. "HARREMANETARAKO PERTSONAREN HELBIDE ELEKTRONIKOA" eremua gehitu da, 181tik 230era bitarteko posizioak dituen, Foru Aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 192 eredu1. motako erregistro diseinuetan (Aitortzailearen erregistroa), haren edukia hau da eta:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUAREN AZALPENA
181-230	Alfanumerikoa	HARREMANETARAKO PERTSONAREN HELBIDE ELEKTRONIKOA Harremanetarako pertsonaren posta elektronikoaren helbidea adierazi behar da.

Bi. "ZIGILU ELEKTRONIKOA" eremua ezabatzen da, 238tik 250era bitarteko posizioak dituen, Foru Aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 192 eredu1. motako erregistro diseinuetan (Aitortzailearen erregistroa); aldi berean, "ZURIUNEAK" eremuko posizioak aldatuko eta eguneratuko dira:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUAREN AZALPENA
231-500	—	ZURIUNEAK

Hiru. "HERRIALDEAREN KODEA" eremuaren edukia aldatu da, 78tik 80era posizioak dituen, Foru Aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 192 ereduiko 2. motako erregistro diseinuetan (Aitortuaren erregistroa), honela idatzita geratuko da:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUAREN AZLPENA
78-80	Alfabetikoa	HERRIALDEAREN KODEA Establezimendu iraunkorrik gabeko ez-egoiliarra bada, aitortua bizi den herrialdeari edo lurraldeari dagozkion karaktere alfabetikoak jasoko dira, indarrean dauden herrialde eta lurraldeen kode alfabetikoen arabera. Establezimendu iraunkor bidez Espainian diharduten egoiliarrek edo ez-egoiliarrek badira, 78-80 posizioak zuri utziko dira.

Lau. "ERAGIKETA MOTA" eremuaren edukia aldatu da, 98tik 99ra posizioak dituen, Foru Aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 192 ereduiko 2. motako erregistro diseinuetan (Aitortuaren erregistroa), honela idatzita geratuko da:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUAREN AZALPENA
98-99	Zenbakizkoa	ERAGIKETA MOTA Dagokion gakoa:
		Gakoa Deskribapena
		Alta eragiketa mota:
		01 Harpidetza.
		02 Erosketa edo berrerosketa.
		03 Baloreen mailegua.
		04 Alta, beste erakunde kudeatzaile batetik intsuldatzeagatik.
		05 Balore tituluak eraldatzea.
		06 Finantza kontuei lotutako aldi baterako lagapenak.
		07 Finantza kontuei lotuta ez dauden aldi baterako lagapenak.
		08 Balore maileguaren atzeralagapena.
		09 Bigarren mailako merkatuan egin ez diren eskualdaketak; Balore Merkatuei eta Inbertsio Zerbitzuei buruzko martxoaren 17ko 6/2023 Legearen 62. artikulua.
		10 Errendimenduak sortzen dituzten beste eragiketa batzuk.
		Baja eragiketa mota:
		11 Amortizazioa.
		12 Salmenta edo birsalmenta.
		13 Baloreen mailegua.
		14 Baja, beste erakunde kudeatzaile batera intsuldatzeagatik.
		15 Balore tituluak eraldatzea.
		16 Finantza kontuei lotutako aldi baterako lagapenak kitatzea.
17 Finantza kontuei lotuta ez dauden aldi baterako lagapenak kitatzea.		
18 Balore maileguaren atzeralagapena.		
19 Bigarren mailako merkatuan egin ez diren eskualdaketak; Balore Merkatuei eta Inbertsio Zerbitzuei buruzko martxoaren 17ko 6/2023 Legearen 62. artikulua.		
20 Errendimenduak sortzen dituzten beste eragiketa batzuk.		

Bost. "ERAGIKETAREN GASTUAK" eremu berria gehitu da, 163tik 175era posizioak dituena, Foru Aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 192 ereduko 2. motako erregistro diseinuetan (Aitortuaren erregistroa), haren edukia hau da; aldi berean, "ZURIUNEAK" eremuko posizioak eguneratuko dira:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUAREN AZALPENA
163-175	Numerikoa	ERAGIKETAREN GASTUAK Eremu horretan, hala badagokio, eragiketa horri atxikitako gastuei dagokien zenbatekoa jasoko da. Eskualdatze edo intsuldaketengatik izandako baja kasuetan, eragiketa horri dagozkion gastuen berri emango da, bai eta eskuratzeko eragiketaren edo jatorrizko altaren gastuen berri ere.
		Eragiketari lotutako aitortu asko daudenean, haietako bakoitzean, haietako bakoitzari partaidetzaren ehunekoaren arabera egotz dakioken eragiketaren gastuen zenbateko osoa idatziko da.
		Eremu hau bitan banatzen da:
		163-173 Eragiketaren gastuen zenbatekoaren zati osoa. 174-175 Eragiketaren gastuen zenbatekoaren zati hamartarra.
176-500	—	ZURIUNEAK

Bigarren artikulua. Aldatzea 133/2005 Foru Agindua, martxoaren 9koa, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuarena. Honen bidez, 198 eredua onartzen da, finantza-aktiboekin eta bestelako balio higikorrek egindako eragiketen urteko aitorpenerakoa, bai eta diseinu fisiko eta logikoak ere, horien barruko orriak ordenagailuz irakurtzeko euskarrien bidez ordezkatzeko.

Aldaketa hauek egiten zaizkio martxoaren 9ko 133/2005 Foru Aginduari:

Bat. "ZIGILU ELEKTRONIKOA" eremua ezabatzen da, 488tik 500era bitarteko posizioak dituena, Foru Aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 198 ereduko 1. motako erregistro diseinuetan (Aitortzailearen erregistroa); aldi berean, "ZURIUNEAK" eremuko posizioak aldatuko eta eguneratuko dira:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUAREN AZALPENA
271-500	—	ZURIUNEAK

Bi. "KODE GAKOIA" eremuaren edukia aldatu da, 120 posizioa duena, Foru Aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 198 ereduko 2. motako erregistro diseinuetan (Aitortuaren erregistroa), honela idatzita geratuko da:

POSIZIOA	IZAERA	EREMUAREN AZALPENA	
120	Numerikoa	KODE GAKOIA Jaulkitzaile kodearen eremuaren edukia eta, hala badagokio, ISIN kodea identifikatzen ditu. Orokorrean, baloreen identifikazioa "4" gakoia jarri egingo da, salbu eta baloreek ISIN esleituta ez daukatenean edo jaulkitzaileak IFZ esleituta ez daukanean.	
		Har ditzakeen balioak:	
		1	Baloreen identifikazioa jaulkitzailearen IFZren bidez bakarrik egiten da.
		2	Baloreen identifikazioa ISIN kodearen bidez bakarrik egiten da.
		3	ISIN esleituta ez daukaten atzerriko baloreei dagokie.
		4	Baloreen identifikazioa ISIN kodearen bidez (317-328 posizioak) eta jaulkitzailearen IFZren bidez (121-132 posizioak) egiten da.
5	Baloreak beste kode mota baten bidez identifikatzen dira. Balore hori erabili ahal izango da soilik "BALORE GAKOIA" eremuak (2 motako erregistroaren 137 posizioa) "L. Aldeen arabera kontratuak" balorea hartzen duenean.		

Hiru. "JAULKITZAILE KODEA" eremuaren edukia aldatu da, 121tik 132ra posizioak dituen, Foru Aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 198 ereduiko 2. motako erregistro diseinuetan (Aitortuaren erregistroa), honela idatzita geratuko da:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUAREN AZALPENA
121-132	Alfanumerikoa	JAUUKITZAILE KODEA "KODE GAKOA" eremuak (2 erregistro motako 120 posizioa) "1" balioa duenean, zerga administrazioak emandako identifikazio fiskaleko zenbakia jarri behar da.
		Berre edo gozamen eskubideak direnean, haiek eratzten diren ondasunen titularraren IFZ jarri behar da ("KODE GAKOA" eremua, 120 posizioa, "1" balioaz beteta dagoen kasua).
		"KODE GAKOA"n (120 posizioan) "4" balioaz identifikatutako baloreetarako, zerga administrazioak emandako identifikazio fiskaleko zenbakia jarri behar da eremu honetan. ISIN kodeari dagokion identifikazioa "ISIN KODEA" eremuan bete behar da (317-328 posizioak).
		ISIN kodea esleituta ez daukaten atzerriko baloreetarako, "ZXX" gakoak agertuko da, "XX" herrialde jaulkitzailearen kodea izanik, abenduaren 20ko 773/2021 Foru Aginduaren eranskinean agertzen diren herrialde gakoaren arabera ("KODE GAKOA" eremua, 120 posizioa, "3" balioaz beteta dagoen kasua).
		"KODE GAKOA"rekin identifikatutako baloreetarako (120 posizioa, "5" balioduna), baloreen identifikaziorako erabilitako kodea adieraziko da.
		"KODE GAKOA" eremuarekin identifikatutako baloetarako (120 posizioa, "2" balioduna), eremu horrek ez du edukirik izango, eta "ISIN KODEA" eremua bete behar da (317-328 posizioak).

Hirugarren artikulua. Aldatzea Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren irailaren 27ko 529/2017 Foru Agindua, onesten duena 289 eredu finantza kontuen urteko informazio aitortpena elkarrekiko laguntzaren esparruan.

Honako aldaketa hauek egiten zaizkio irailaren 27ko 529/2017 Foru Aginduari:

Bat. Aldatzen da I. eranskina-Egoiliar fiskalen herrialde edo jurisdikzioen zerrenda, zeinaren arabera, finantza entitateek, elkarrekiko laguntzaren esparruan, finantza kontuen urteko informazio aitortpena (289 eredu) aurkeztu behar duten, honela geratzen da idatzita:

OTSAILAREN 21EKO 6/2017 FORU DEKRETUAREN 4. ARTIKULUAREN A) LETRA (*)		OTSAILAREN 21EKO 6/2017 FORU DEKRETUAREN 4. ARTIKULUAREN A), B) ETA C) LETRA (*)
EB	EB AKORDIOA DUTEN HERRIALDEAK ETA JURISDIKZIOAK	AMACEK ONDORIOAK IZANGO DITUEN HERRIALDEAK ETA JURISDIKZIOAK ETA ALDE BIKO AKORDIOA DUTEN HERRIALDEAK
2025 ETA HURRENGOAK	2025 ETA HURRENGOAK	2025 ETA HURRENGOAK
Alemania	Liechtenstein	Albania
Austria	San Marino	Antigua y Barbuda
Belgika	Andorra	Saudi Arabia
Bulgaria	Monako	Argentina
Zipre	Suitza	Armenia
Kroazia		Aruba (Herbehereak)
Danimarka (**)		Australia
Eslovenia		Azerbaijan
Estonia		Barbados
Finlandia		Belize
Frantzia (**)		Bonaire (Herbehereak)
Grezia		Brasil
Hungaria		Brunei Darussalam
Irlanda		Kanada
Italia		Txile
Letonia		Txina
Lituania		Kolonbia
Luxemburgo		Korea
Malta		Costa Rica
Herbehereak (**)		Curasao (Herbehereak)
Polonia		Dominika

OTSAILAREN 21EKO 6/2017 FORU DEKRETUAREN 4. ARTIKULUAREN A) LETRA (*)		OTSAILAREN 21EKO 6/2017 FORU DEKRETUAREN 4. ARTIKULUAREN A), B) ETA C) LETRA (*)
EB	EB AKORDIOA DUTEN HERRIALDEAK ETA JURISDIKZIOAK	AMACEK ONDORIOAK IZANGO DITUEN HERRIALDEAK ETA JURISDIKZIOAK ETA ALDE BIKO AKORDIOA DUTEN HERRIALDEAK
2025 ETA HURRENGOAK	2025 ETA HURRENGOAK	2025 ETA HURRENGOAK
Portugal		Ekuador
Txekiar Errepublika		Georgia
Eslovakiako Errepublika		Ghana
Errumania		Gibraltar (Erresuma Batuan) (***)
Suedia		Granada
		Groenlandia (Danimarka)
		Guernsey (Erresuma Batuan)
		Hong Kong
		India
		Indonesia
		Islandia
		Cook uharteak (Zeelanda Berria)
		Man uhartea (Erresuma Batuan)
		Feroe uhartea (Danimarka)
		Israel
		Jamaika
		Japonia
		Jersey (Erresuma Batuan)
		Kazakhstan
		Kenia
		Libano
		Macao (China)
		Malasia
		Maldivak
		Maroko
		Maurizio
		Mexico
		Moldavia
		Montenegro
		Montserrat
		Nigeria
		Niue
		Norvegia
		Kaledonia Berria (Frantzia)
		Zeelanda Berria
		Oman
		Pakistan
		Panama
		Peru
		Erresuma Batua
		Ruanda
		Errusia
		Saba (Herbehereak)
		Samoa
		Saint Kitts eta Nevis
		San Eustakio (Herbehereak)
		San Martin (Herbehereak)
		Saint Vincent eta Grenadinak

OTSAILAREN 21EKO 6/2017 FORU DEKRETUAREN 4. ARTIKULUAREN A) LETRA (*)		OTSAILAREN 21EKO 6/2017 FORU DEKRETUAREN 4. ARTIKULUAREN A), B) ETA C) LETRAK (**)
EB	EB AKORDIOA DUTEN HERRIALDEAK ETA JURISDIKZIOAK	AMACEK ONDORIOAK IZANGO DITUEN HERRIALDEAK ETA JURISDIKZIOAK ETA ALDE BIKO AKORDIOA DUTEN HERRIALDEAK
2025 ETA HURRENGOAK	2025 ETA HURRENGOAK	2025 ETA HURRENGOAK
		Santa Luzia
		Senegal
		Seychelleak
		Singapur
		Hegoafrika
		Thailandia
		Tunisia
		Turkia
		Ukrania
		Uganda
		Uruguay
		Vanuatu

(*) Otsailaren 21eko 6/2017 Foru Dekretua, zeinak ezartzen baitu identifikatu beharra dagoela finantza kontu jakin batzuen titulartasuna daukaten edo kontu horiek kontrolatzen dituztenen zerga egoitza eta haiei buruzko informazioa eman beharra dagoela elkarrekiko laguntzaren esparruan.

(**) AMAC-en eraginpean izango diren herrialdeen eta jurisdikzioen eta alde biko hitzarmena duten herrialdeen zutabearen agertzen diren lurraldeak izan ezik [Otsailaren 21eko 6/2017 Foru Dekretuaren 4. artikuluen b) eta c) letrak].

(***) Nazioarteko Akordioa, fiskalitateari eta finantza interesen babesari buruzkoa, Espainiako Erresumaren eta Britainia Handiko eta Ipar Irlandako Erresuma Batuaren artekoa, Gibraltari buruzkoa, Madrilen eta Londresen ad referendum egina 2019ko martxoaren 4an.

Bi. Aldatzen da II. eranskina- Herrialde edo jurisdikzioen zerrenda, azaroaren 13ko 1021/2015 Errege Dekretuak, elkarrekiko laguntzaren esparruan hainbat finantza konturen titulartasuna edo kontrola duten pertsonen egoitza fiskala identifikatzeko eta haien inguruko informazioa emateko betebeharra ezartzen duenak, eranskinaren VIII. atalaren D.4 apartatuan aipatutako «Jurisdikzio parte-hartzailatzat» jotzen direnena. Honela geratzen da idatzita:

PARTE HARTZEN DUTEN JURISDIKZIOEN ZERRENDA		
Albania	Granada	Montserrat (Erresuma Batua)
Alemania	Grecia	Nauru
Andorra	Groenlandia (Danimarka)	Nigeria
Aingira (Erresuma Batua)	Guernsey (Erresuma Batua)	Niue
Antigua y Barbuda	Hong Kong	Norvegia
Saudi Arabia	Hungaria	Kaledonia Berria (Frantzia)
Argentina	India	Zeelanda Berria
Armenia	Indonesia	Oman
Aruba (Herbehereak)	Irlanda	Herbehereak
Australia	Man uharteak (Erresuma Batua)	Pakistan
Austria	Islandia	Panama
Azerbaijan	Caiman uharteak (Erresuma Batua)	Peru
Bahamak	Cook uharteak (Zeelanda Berria)	Polonia
Bahrain	Feroe uharteak (Danimarka)	Portugal
Barbados	Marshall uharteak	Qatar
Belgika	Turk eta Caico uharteak (Erresuma Batua)	Erresuma Batua
Belize	Birjina uharte britainiarrak (E. Batua)	Txekiar Errepublika

PARTE HARTZEN DUTEN JURISDIKZIOEN ZERRENDA		
Bermuda (Erresuma Batua)	Israel	República Eslovaca
Brazil	Italia	Ruanda
Brunei Darussalam	Jamakca	Errumania
Bulgaria	Japonia	Errusia
Kanada	Jersey (Erresuma Batua)	Samoa
Txile	Kazakhstan	Saint Kitts eta Nevis
Txina	Kenia	San Marino
Zipre	Kuwait	Sint Maartin (Herbehereak)
Colombia	Letonia	Saint Vincent eta Grenadinak
Korea	Libano	Santa Luzia
Costa Rica	Liberia	Senegal
Kroazia	Liechtenstein	Seychellak
Curasao (Herbehereak)	Lituania	Singapur
Danimarka	Luxemburgo	Hegoafrika
Dominica	Macao (Txina)	Suedia
Ekuador	Malaysia	Suitza
Arabiar Emireerri Batuak	Maldivak	Thailandia
Eslovenia	Malta	Tunisia
Estonia	Maroco	Turkia
Finlandia	Maurizio	Ukrania
Frantzia	Mexico	Uganda
Georgia	Moldavia	Uruguay
Ghana	Monaco	Vanuatu
Gibraltar (Erresuma Batua) (*)	Montenegro	

(*) Nazioarteko Akordioa, fiskalitateari eta finantza interesen babesari buruzkoa, Espainiako Erresumaren eta Britainia Handiko eta Ipar Irlandako Erresuma Batuaren artekoa, Gibraltar-i buruzkoa, Madril en eta Londresen ad referendum egina 2019ko martxoaren 4an.

Laugarren artikulua. Aldatzea 12/2009 Foru Agindua, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuarena, urtarrilaren 20koa. Honen bidez, 346 eredia onartzen da, nekazaritza, abeltzaintza edo basogintzako jarduerak direla-eta emandako dirulaguntza, kalteordain eta laguntzei buruzko aitorten informatiboari buruzkoa.

Aldaketa hauek egiten zaizkio urtarrilaren 20ko 12/2009 Foru Aginduari:

Bat. "HARREMANETARAKO PERTSONAREN HELBIDE ELEKTRONIKOA" eremua gehitu da, 163tik 212ra bitarteko posizioak dituen, Foru Aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 346 ereduko 1. motako erregistro diseinuetan (Aitortzailearen erregistroa); haren edukia hau da eta:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUAREN AZALPENA
163-212	Alfanumerikoa	HARREMANETARAKO PERTSONAREN HELBIDE ELEKTRONIKOA Harremanetarako pertsonaren posta elektronikoaren helbidea adierazi behar da.

Bi. "ZIGILU ELEKTRONIKOA" eremua ezabatzen da, 488tik 500era bitarteko posizioak dituen, Foru Aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 346 ereduko 1. motako erregistro diseinuetan (Aitortzailearen erregistroa); aldi berean, "ZURIUNEAK" eremuko posizioak aldatuko eta eguneratuko dira:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUAREN AZALPENA
213-500	—	ZURIUNEAK

Hiru. "HARTUKIZUNAREN GAKOA" eremuaren edukia aldatu da, 78 posizioa duena, Foru Agindua II. eranskinean jasotzen diren 346 ereduko 2. motako erregistro diseinuetan (Hartzailearen erregistroa), honela idatzita geratuko da:

POSIZIOA	IZAERA	EREMUAREN AZALPENA
78	Alfabetikoa	HARTUKIZUNAREN GAKOA Dirulaguntza, kalte-ordain edo laguntza bakoitzari dagokion gako alfabetikoa jarri behar da; hona zerrenda:
		A Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zerga, sozietateen gaineko zerga eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga (establezimendu iraunkorrek lortutako errentak) ordaintzetik salbuetsita dauden dirulaguntzak, kalte ordainak edo laguntzak, aitortpena aurkeztu behar den ekitaldian zerga hori arautzen duen indarreko araudiaren arabera.
		B Aurreko dirulaguntza, kalte-ordain eta laguntzak ez beste batzuk.

AZKEN XEDAPENA

Foru agindu honek ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra, eta 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera aurkeztzen diren eragiketei aplikatuko zaie lehenengo aldiz, 2024. urteko informazioari dagokionez.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urtarrilaren 13a

Bigarren diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua
ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasun zuzendaria
MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA